

6. Lurdes Imaz

**EHIGE – Euskal Herriko Ikasleen
Guraso Elkarte**

Bi zatitan banatuko dut nire aurkezpena. Aurrenekoan datuak emango ditut eta ondoren gure baitan egiten ari garen hauskarketak azalduko ditut.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak uda aurretik argitaratu zuen [“Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa”](#) izeneko dokumentuko datu batzuk emango dizkizuet lehen zatian, zehazki 5.3. puntukoak. Diagnostiko hau oinarritzen da aurretik egindako hainbat dokumentuetan (EUSTAT, Inkesta Soziolinguistikoak, PISA, ISEI/IVEIren txostenak, Arrue, etabar)

Jaiotze tasari buruzko datuak. Haur Hezkuntzako ikasle kopurua %21 murriztuko da 2031ra bitartean. Egun jaiotzen diren umeen %21,4 familia atzerritarrena da.

Jaiotze atzerritarra duten ikasle kopurua. Jatorri atzerritarra duen ikasle kopurua (atzerrian jaiotakoak edo aurrekoren bat atzerritarra dutena): %15,7 (33.079 ikasle). Hauen %75 sare publikoan eskolaratzen da Lehen Hezkuntzan, DBHko datuak orekatuagoak dira bi sareen artean.

Elebitasun tipologiak zehazten ditu 2017ko Ebaluazio Diagnostikoak:

TIPOLOGIA	ERRENDIMENDU MAILA		LHko ikasle%	DBHko ikasle%
Gaitasunik gabeak	Maila baxua	Maila baxua	8,5%	10,9%
Erdaldun elebakarrak	Maila baxua	Maila baxua gainditzen du	28,7%	34,4%
Euskaldun elebakarrak	Maila baxua gainditzen du	Maila baxua	2,4%	1,6%
Elebidun orekatuak	Erdi maila	Erdi maila	26,9%	22,7%
Erdal elebidunak	Erdi maila	Nivel avanzado	9,5%	13,4%
Euskal elebidunak	Maila altua	Erdi maila	10,5%	4,4%
Elebidun orekatu goi mailakoak	Maila altua	Maila altua	13,9%	12,5

ED17. LHko 4. maila	ISEK individuala	Adin-egokitasuna	Jatorri etorkina	Familia-hizkuntza euskara	L1 euskara
Gaitasunik gabeak	-0,52	83,4	12,6	26,7	32,7
Erdaldun elebakarrak	-0,23	89,5	13,1	13,4	21,5
Euskaldun elebakarrak	-0,04	94,4	6,1	56,8	68,7
Elebidun orekatuak	0,04	95,6	7,5	28,5	43,7
Erdal elebidunak	0,27	98,1	7,4	9,7	23,0
Euskal elebidunak	0,31	99,2	2,9	55,8	72,6
Elebidun orekatu goi mailakoak	0,46	99,4	2,9	32,7	52,0
GUZTIZKOA	0,02	93,9	8,4	26,5	39,3

ED17. DBHko 2. maila	ISEK individuala	Adin-egokitasuna	Jatorri etorkina	Familia-hizkuntza euskara	L1 euskara
Gaitasunik gabeak	-0,56	62,5	11,6	16,2	30,9
Erdaldun elebakarrak	-0,14	78,2	10,0	7,9	22,4
Euskaldun elebakarrak	-0,13	88,6	4,2	44,3	63,6
Elebidun orekatuak	0,13	93,1	4,2	26,9	49,2
Erdal elebidunak	0,33	95,5	3,2	11,3	31,2
Euskal elebidunak	0,32	97,5	0,8	55,2	75,7
Elebidun orekatu goi mailakoak	0,52	98,8	2,2	31,6	55,4
GUZTIZKOA	0,05	85,8	6,4	19,2	37,8


Koadro hauetan argi ikusten da hainbat faktorek eragiten dutela ikasleen hizkuntza kompetentzian bi hizkuntza ofizialetan. Ikasleen ISEK mailak (indize sozio-ekonomikoa), adin-egokitasunak eta jatorriak baldintzatu egiten dute, neurri handi batean, ikasleen hizkuntza-kompetentzia bi hizkuntza ofizialetan. Familia-hizkuntzak eta lehen hizkuntzak ere eragina dute elebitasun mailan.

Datu batzuk ematearren:

-Ez euskarari ez gaztelan gaitasunik ez duten ikasleak dira ISEK maila txikiena dutenak, eta jatorriz etorkinak diren ikasleen eta errepikatzeen ehunekorik handiena dutenak. Ikasle erdaldun elebakarrek aurrekoen antzeko profila dute, hain muturrekoak ez diren balioekin, ordea.


-Beste muturrean, ikasle elebidun orekatu goi-mailakoak daude: ISEK maila altuena dute, errepikatze-tasarik txikiena jatorriz etorkinak diren ikasleen ehunekorik txikiena. Eraitza akademiko onenak lortzen dituzten ikasleak dira.

ISEK datuen eboluzioa argi erakusten du PISA 2015ek:



Koadroan argi erakusten da ISEK maila jeitsi egin dela estrato guztietan 2012tik 2015era eta sare publikoan daudela ISEK maila txikiena duten ikasleak. Zehazki sare publikoko A eremuan pilatzen dira egoera sozio-ekonomiko kaxkarrena duten ikasleak.

Guzti hau esanda, onartu behar da **hezkuntza sistemak egindako ekarpena elebitasunari**, izan ere ikasle elebidunen kopurua ia hirualdiz handiagoa da familia-hizkuntza euskara duten ikasleen aldean.




Datubatzukematearren:

- Euskarara erakarrien kopurua gehiengoan izan da ia edizio guztietan; orain, % 40 ingurukoa da bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn, baina etengabe jaisten joan da 2009tik 2015era eta, 2017an, egonkortu egin da LehenHezkuntzan, eta zerbait hobetu DBHn.

-Euskara egonkor mantendu da % 20 inguruko ehunekoan Lehen Hezkuntzan; DBHn, berriz, % 13tik % 20ra igo zen 2009 eta 2013 urte bitartean; ordea, jaitsi egin da % 15era arte 2017an.

-Euskararen galerak gora egin du % 3tik % 6ra Lehen Hezkuntzan, eta % 4,5era DBHn.

Amaitzeko, **euskararen erabileraren** eboluzioa ikastetxeetan (LH4ko ikasleen arabera) zuzen ere (ikuskoadroa). Bilakaera egonkorra da bi etapetan, nahiz eta jaitsiera arina (hamarren batekoa) ikusten den bai gela barruan, bai kanpoan irakasleekin euskaraz hitz egiten dutela dioten ikasleen ehunekoan Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan



Guzti honekin esan nahi dut hezkuntza sistema oinarriko eragilea izan den arren euskal hiztunak sortzen. Hala ere, **hezkuntza sistemak bakarrik ezin du** bermatu ikasle guztien elebitasuna. Beharrezkoa da arlo desberdinetako eragileen elkarlana.

Datu hauek eman eta gero EHIGE eta HEIZEk egin ditugun hausnaketak konpartituko dizkizuet.

Eskola publikoaren aportazioa euskal hezkuntza sistemaren euskalduntzeari. Eskola publikoko eragileei esker (irakasleen euskalduntzea, familien aukera, eta abar) gaur egun eskola publikoa euskalduntze eragile inportanteenetakoa da. Izan ere sistema osoko ikasleen %50^a eskolaratzen du (160.000 ikasle inguru), horietako %83,4 D ereduan.

Aniztasuna D eredua. D ereduak gora egin duen heinean etengabe sare publikoan, gora egin du ere ikasleen aniztasunak. Horrek erabiltzen ari garen metodologiak aztertu eta ebaluatzea exijitzen du, hala behar ezker baliabide gehiago emateko ikastetxeei. Ezinbestekoa da jakitea aniztasun horri aurre egiteko orain arte erabili ditugun baliabideak eta estrategiak zein neurrian jarraitzen duten balizkoak izaten. Gelan aplikatzen ari garen programen eta estrategien efizientzia ebaluatu behar ditugu etengabe.

Justizia sozialaren kontzeptua sartu behar da hezkuntzan. Hezkuntzaren indar transformatzailea aldarrikatzen dugu. Ezin dugu onartu ikasleen egoera sozio-ekonomikoak halako eragina izatea emaitzetan eta gure hizkuntzaren ezagutzan, ezta getoak egitea ere. Eskola inklusiboa aldarrikatzen dugu eta horretarako beharrezkoa da, besteak beste: eredu linguistikoak desagertzea, aniztasuna balorean ipintzea eta ikastetxe anitzak sortzea, finantzazio gehiago ematea zailtasun gehiago dituzten ikastetxeei, baita autonomia ere euren beharretara egokitzeko.

Ez dugu nahi bigarren mailako hiritarrik. Hizkuntzan oinarritutako segregaziorik ez, lehen eta bigarren mailako hiritarrik ez. Benetako erronka da jatorri askotariko euskal herritar berriak eta haien seme-alabak gure hizkuntza eta kulturara erakartzea.

Duela gutxi entzundako esaldi batekin amaitu nahi nuke: helduen interesen arabera edo ikasleen interesen arabera hezkuntza sistema nahi dugu?